

ABENDUA

ZERURA BEGIRA

Neguan sartuko gareneko abendu honetan, urteko egunik motzenak izango dira; bederatzi ordu eta hamazazpi minutuko tarte "motza" izango dute abenduaren 17, 19, 20, 21, 22, 23 eta 25eko egunek. Hortik aurrera eguna luzatuz doa eta hauxe da abenduaren 1aren eta 31ren luzeren artean minutu bakarraren aldea egotearen arrazoia.

Abenduak 6, 3,26etan, ilgora
 " 12, 18,30etan, ilargi betea (ilbehera hasi)
 " 13,15 eta 16 tenporak
 " 20, 1,54etan, NEGUA hasi, eguzkia Capricornus arora sartzen da
 " 28, 5,20etan, ilargi berria (ilgora hasi)

* ordu ofizialak.

FRUTARBOLAK

Uztarako basa fruitu gutxi batzuk besterik ez ditugu izango. Landaketak egin daitezke. Kontu izan landarea zainak airean dauden bitartean izotzak jo ez ditzan eta ezta mintegitik atera edo zuloan landatzeko garaian ere.

	EREIN	LANDATU	UZTA
BARATZA	Ilgora * Ilarra * Baba * Alberjina * Kalabazina * Piperrak Ilbehera * Ur-berroa * Eskarola	* Marrubia * Baratzuria	* Errefaua * Porrua * Azenarioa * Azak * Azalorea * Zerba * Eskarolak * Espinaka * Arbitxoa * Ur-berroa * Batata * Txikoria * Apioa * Gardua
BELARRAK			* Perrexila * Belar bedeinkatua

Erein: hazia;
Landatu: landarea, aldaska, zaina, erreboila begia, etab.

BITXIKERIA

Barazki bereziak

Arabarba:

Rheum rabarbarum. Uzta: hosto-txortena.

Arabarba landare bizigarria da eta berezkoa duen garratasun izugarria medio konfitura, konpota edo beste barazki batzuekin nahasitako pure eta abarretan prestatu ohi da..

Landatu: apiril-maiatzean zain-puskak landatzen dira 0,8-1 m-ko tartearekin.

Lanak: hasieran ureztaketa ugari. Jorraldi batzuk burutu lurra zainaren inguruan arindu ondoren bilduz. Loretarako txortanak moztu.

Uzta: hurrengo urteko maiatzetik aurrera, hostoak garatu ahal bildu, beraien txortena edo pezioloa erabiltzen delarik.

Barietateak: Mitchell's; Royal Albert; Tobolsk-eko goizeko gorria; Victoria (berandukoa).

Baratzako belar bedeinkatua:

Valerianella olitoria. Uzta: hostoa.

Neguan letxuaren ordezkotzat den barazki hau ez da batere berozalea. Aldiz, hotza erraz jasan dezake. Hau dela eta, udaberri eta udazkenean itzalean eta heze mantenduko ditugu.

Belar-txarrik gabeko lurtean landu (barrabas belarrik gabe, adibidez); denbora luzez aritu beharko bait genuke hauek kentzen.

Erein: uztail-iraila aldean sailean edo 25-30 cm-ko tartea duten erroiletan. Metro karratuko gramo bat (500 ale) erein. Erroilatan ereinez gero, belar-kentze lana askoz ere errazagoa da.

Lanak: erein ondoren, eta erneketa burutu arte batipat (baina gero ere bai), ureztaketa izango da lanik garrantzitsuena. Belar txar guztiak ere ugari kendu behar dira.

Uzta:urrian hasi eta martxo bitartean, negu osoan, landareak hazi ahala osoki moztuta. Uzta, areako 50-80 kg-koa izan ohi da.



Barietateak: italiarra (txikia, berde argia, goiztiarra); holandarra (berde iluna, oso gogorra); Etanpeseke berdea (onentzat hartua).

Txikori-belarra:

Taraxacum officinale. Uzta: hostoa.

Harrigarria gerta badaiteke ere, belardietan hain ugari eza-gutu ohi dugun belar hau barazki bezala lantzea oso zabaldua dago Europa aldean.

Landare gogorra da eta ez du eguraldi aldetik inolako premia berezirik. Lurrari dagokionez, hareatsuak ezik edozeinetara egokitzen da..

Erein: apiril-ekaina aldera; mintegian, metro karratuko 1,5 edo 2 gramo.

Lanak: erneketa gogaikarri samarra duenez, turba pixka batez estaltzea komeni da, lurak hezetasunari errazago eutsi diezaion.

ESAERAK

(Julian Alustizaren "Euskal Baserriaren inguruan" liburutik jasoak)

- * Abenduko izarrak
atzetik laster dakazkite
elur edo kazkabarrak
- * Abenduko lainoek
negua eta elurra
- * Abenduko egune
argitu orduko ilune (Gabiria)
- * Eguberri
eruek igerri,
zoluek ere larri (Urdiain)
- * Abenduko elurra, harria
Urtarrilekoa, burnia
Otsailekoa, zura
Martxokoa, ura
Apirilaz geroztik uda.

Landatu: landaretxoek 4-6 hosto dituztenean 30 cm-ko tartearen duten erroiletan, 10 cm-ra.

Zuriketa: txikori-belarra, naturan dagoen bezala berde jan baino zuritu ondoren jatea nahiago izaten da. Zuriketa hau hiru erataria egin daiteke:

- hostoak elkarrengana bildu eta lotu
- lotu eta gero lurrez estali
- lotu eta gero lorontzi batez estali.

Uzta: urtarriletik aurrera.

Barietateak: azkenaldi honetan buru beteagoa duten belar-haziak azaldu dira azokatan.

Txikoria-osterzuria-eskarola kizkurra:

Cicharium intybus. Uzta: hostoa

Landare gogorra da eta hotza bezainbeste jasan ditzake lehortea eta beroa. Lurrik txarrenean ere hazten da.

Erein: apiril eta uztaila aldera zuzenean sailean, mintegian edo 30 cm-ko tartearen duten erroiletan. Metro karratuko 0,5 gramo (gramoko 1.000 ale).

Landatu: mintegian ereindakoak (osterzuria eta kizkurra batipat) 4-6 hostoekin 40x30 cm-ko tartearekin.

Lanak: erroiletan ereindakoak, landare onenak aukeratu 4 hosto dituztenean, batetik bestera 10 cm utziz. Noizean behin ureztatu eta jorratu. Eskarolak lotu daitezke buruak zuri daitezen.

Uzta: negu osoan, osterzuria eta eskarola kizkurra burua osatzean; txikoria, hostoak 10-15 cm dituztenean.

Barietateak: Txikoria: azukre ogia (garratza); Veronako gorria (xamurragoa)

Osterzuria: Milanoko zuria, papalinakoa eta Bordelekoa.

Eskarola kizkurra: Ruffee, Meaux, bihotz horia (udakoa). ■